



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2017/04/20

Auschwitz eta Gernika herri senidetuek bake, justizia eta bizikidetzarako giza beharrezana adierazten dute

Urkullu lehendakariak eta Ana Otadui Bizkaiko Batzarretako presidentek Auschwitzera egindako bidaia ofizialeko azken egunean, Gernikako Arbolaren kimu bat landatu dute Kontzentrazio Esparrutik metro gutxi batzuetara, Zasole Parkean. Arbola landatzeak, Lehendakariaren arabera, etorkizuneko bizikidetzaren aldeko konpromisoa partekatzea esan nahi du. Gainera, ekitaldi sinbolikoan, Lehendakariak “Bakea Giza Eskubide unibertsala” izatea eskatu dio Nazio Batuen Erakundeari, nazioartean berpiztutako gerra hotsei erantzunez.

Landaketan parte hartu dute ere Janusz Chwierut Oświęcimeko alkateak, eta Enrique Villamor APTCEko presidentek. Haiekin batera, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Bizkaiko Batzar Nagusietakoak, Auschwitz Birkenau museoko ordezkariak eta 500 bat euskal eta poloniar gazte izan dira.

Urkullu lehendakariak azaldu du Auschwitz eta Gernika denboran eta belaunaldiz belaunaldi iraun duen “garrasi lazgarri” baten adierazle direla. Bi herriotako gazteen begien aurrean eta gerra eta indarkeriaren aurrean, “Gernikako Arbola hau landatzen dugu Auschwitzeko lur honetan eta, hartara, elkarrekin baieztatzen dugu mundu hobe bat eriteko konpromisoa dugula, pertsona guztien biziarekin, duintasunarekin eta giza eskubideekin begirunea duen mundu bat”, hala adierazi du Lehendakariak.

BAKEA GIZA ESKUBIDE UNIBERTSALA

Bere agerraldian, Lehendakaria nazioarteko askotariko gerra hotsen gainean aritu da. Alde horretatik, Nazio Batuen Erakundeari “eskatu eta exijitu” dio “Bakea Giza Eskubide Unibertsala” izatea. Iraganean bizitako sufrimenduzko esperientzian oinarrituta, Gernikako Arbolaren silueta gizakiek duten bake, justizia eta bizikidetzaren premiaren ikurra da.

EKITALDI SINBOLIKOA

Ekitaldia egin den bitartean, Europako, Oświęcim hiriko eta Euskadiko ereserkiak entzun dira. Gernikako Arbolaren musika ere jo dute eta dantzariak Agurra dantzatu diete agintariei. Bi gaztek (neska euskalduna eta mutil poloniarra) arbola ureztatu dute fruitua eman dezan. Bukatzeko, herrien arteko senidetzaren erakusgarri, Oświęcimeko alkateak lurra duen kaxa bat eman dio Lehendakariari.

Duela zenbait urtetik hona, mundu osoan zehar zabaldu dira Gernikako arbolaren kimuak. Askatasunaren eta Bakerako irrikaren irudi gisa hazten ari dira Nairobi-tik New York-era, Buenos Aires-etik Gurs-eko kontzentrazio-esparru frantziarrera, eta gaurtik aurrera Auschwitz-en ere bai.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

80. urtemuga dela-eta, eta euskal gizarteak bakearekin duen konpromiso argiaren erakusgarri, Bizkaiko Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzaren babesa duen ekimen bat abiarazi dute: Gernikako Arbolaren kimuak landatzea bakerako irrika irudikatzen duten guneetan.

GAZTE TOPAGUNERAKO NAZIOARTEKO ZENTROA

Goiz-goizetik, landaketa ekitaldia baino lehen, Lehendakariak Oświęcimeko Gazte Topagunerako Nazioarteko Zentroa bisitatu du, mundu osoko gazteen arteko elkarrizketa eta elkar ulermena sustatzeko gunea. Bertan, Oświęcimeko alkatea, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidente, Jonan Fernández Bizikidetz, Giza Eskubide eta Lankidetzako Zuzendari Nagusia, Marian Elorza Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia eta Bizkaiko juntakideak izan dira (Joseba Gezuraga, Josu Montalban eta Elsa Pamparacuatro). Kirmen Uribe idazle ere bertan izan da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
20/04/2017

Auschwitz y Gernika, simbolizan la necesidad humana de paz, justicia y convivencia

El Lehendakari Urkullu, y la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, en su segundo día de viaje oficial a Auschwitz, han participado en la plantación de un retoño del Árbol de Gernika a pocos metros del Campo de Concentración, en el Parque Zasole. La plantación del árbol supone, según el Lehendakari, compartir el compromiso de convivencia en el futuro. Además, en el acto simbólico, el Lehendakari ha reclamado a la Organización de Naciones Unidas “la Paz como Derecho Humano universal” en respuesta a las voces de guerra que vuelven a sonar en el ámbito internacional.

En la plantación han participado también el Alcalde de Oświęcim, Janusz Chwierut; y el Presidente de APTCE, Enrique Villamor. Junto a ellos han estado representantes del Gobierno Vasco, de los grupos junteros con representación en la Mesa de las Juntas Generales de Bizkaia, y representantes del Museo Auschwitz-Birkenau, así como alrededor de 500 jóvenes vascos y polacos.

El Lehendakari Urkullu ha explicado que Auschwitz y Gernika, representan “un grito desgarrador” que perdura en el tiempo y que se mantiene de generación en generación. Ante los ojos de jóvenes de ambos pueblos y frente a la guerra y la violencia, “plantamos este árbol de Gernika en esta tierra de Auschwitz, afirmando juntos nuestro compromiso y sembrando la esperanza en un mundo mejor, un mundo respetuoso con la vida, la dignidad y los derechos humanos de todas las personas”, ha afirmado el Lehendakari.

PAZ, DERECHO HUMANO UNIVERSAL

En su intervención, el Lehendakari ha hecho referencia a las diferentes voces de guerra que suenan en el ámbito internacional. En este sentido, ha “reclamado y exigido” a la Organización de Naciones Unidas “la Paz como Derecho Humano universal”. Desde la experiencia de sufrimiento vivida en el pasado, la silueta del Árbol de Gernika simboliza la necesidad humana de paz, justicia y convivencia, ha apuntado.

ACTO SIMBÓLICO

A lo largo de la celebración del acto, se han escuchado los himnos de Europa, de la ciudad de Oświęcim y el de Euskadi. También ha sonado la música del Gernikako Arbola y dos dantzaris han bailado el “Agurra” a las autoridades. Dos jóvenes (una chica euskaldun y un chico polaco) han regado el árbol para que pueda dar fruto. Finalmente, el alcalde de la localidad ha entregado al Lehendakari una caja con tierra de Oświęcim como símbolo de hermanamiento entre pueblos.

Desde hace unos años, retoños del árbol de Gernika están repartidos por todo el mundo. Crecen como símbolo de libertad y anhelo de Paz desde Nairobi a Nueva York, desde Buenos Aires al campo de concentración francés de Gurs y desde hoy, también en Auschwitz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En el contexto del 80 aniversario, y como muestra del compromiso inequívoco con la paz de la sociedad vasca, las Juntas Generales de Bizkaia han puesto en marcha una iniciativa que goza del apoyo del Gobierno Vasco y consiste en plantar retoños del Árbol de Gernika en espacios que simbolizan el anhelo de paz.

CENTRO INTERNACIONAL DE ENCUENTRO JUVENIL

A primera hora de la mañana, antes del acto de plantación, la delegación vasca ha visitado el Centro Internacional de Encuentro Juvenil en Oświęcim cuyo objetivo es fomentar el diálogo y el entendimiento especialmente entre los jóvenes. En el centro han estado el alcalde de la ciudad, la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui; el Secretario General de Convivencia, Derechos Humanos y Cooperación, Jonan Fernández; la Secretaria General de Acción Exterior, Marian Elorza, así como representantes de las Juntas de Bizkaia (Joseba Gezuraga, Josu Montalban y Elsa Pamparacuatro). También el escritor Kirmen Uribe.